

Sei Euskal Preso Politikok atxikimendua eman diote Amnistia Egunari

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 12/06/2024

Ohar baten bidez "Euskal Herriaren askatasunerantz jo" behar dugula adierazi dute preso politikoei, "langileon izatearen eta gure nazio izaeraren defentsan" jardunez.

Asteartean plazaratutako ohar baten bidez Fernando Garcia Jodra, Jesus Mari Etxeberria Garaikoetxea, Garikoitz Etxeberria Goikoetxea, Mikel San Sebastian Gaztelumendi, Oskar Barreras Diaz eta Andoni Goikoetxea Gabirondo Euskal Preso Politikoei atxikimendua eman zioten datorren larunbatean, ekainak 15, Gasteizen ASKE antolakundeak antolatu duen [Amnistia Egunari](#).

Oharrean Euskal Herriaren bake egoera zalantzan jarri dute, izan ere, frantziar zein espainiar estatuek "ehundik gora Euskal Preso Politiko gatibu" dauzkatela salatu dute. Era berean, azkenaldiko oldarraldi errepresiboa "Euskal Herri Langilearen askatasun politikoa murritzuz doazenaren" adierazle dela adierazi dute. Segidan, horrek "jo-puntuak daukala hausturan kokaturiko antolakunde oro" azaldu dute, baita "hausturatik, arau eta erakunde inposatuetatik at, Euskal Herriaren askatasunerantz" jo behar dugula ere, "iraultzaren ildotik, langileon izatearen eta gure nazio izaeraren defentsan" jardunez. Bukatzeko, amnistiaren aldarriari jarraiki, "Euskal Herri Langilearen nahiz Euskal Preso Politikoen eskubide politikoen defentsan ere lan egitea" funtsezkotzat jo dute eta lan horren baitan ASKE Antolakundeak ekainaren 15ean Gasteizen burutuko duen Amnistia Egunerako deia egin diote espetxeetatik Euskal Herri Langileari.

<https://eh.lahaine.org/sei-euskal-presos-politikok-atxikimendua>